

## Ordiziako Udala

2019IOSB0002

Ordizian, **2019ko urtarrilaren 31n** UDALBATZARRAK ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

### **BERTARATUTAKOAK:**

#### **LEHENDAKARIA:**

José Miguel Santamaría Ezeiza jn.

#### **BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:**

|                                   |                                       |
|-----------------------------------|---------------------------------------|
| Joseba Aranburu Ganzarain         | EAJ/PNV                               |
| Bittor Bolinaga Alzelai           | EAJ/PNV                               |
| Jose Ignacio Iturrioz Gotor       | EAJ/PNV                               |
| Arantxa Fernandez Alvaredo        | EAJ/PNV                               |
| Igor Eguren Izagirre              | Ordiziako E.H. Bildu                  |
| Belen Maiza Urrestarazu           | Ordiziako E.H. Bildu                  |
| Adur Ezenarro Agirre              | Ordiziako E.H. Bildu                  |
| Izaro Intsausti Zinkunegi andrea. | Ordiziako E.H. Bildu                  |
| Jon Ander Caballero Zubelzu       | Ordiziako E.H. Bildu                  |
| Miren Alazne Sukia Galparsoro     | Ordizia Orain                         |
| M. Jesus Soto De Los Santos       | Ordizia Orain                         |
| Iñaki Dubreuil Churruca jauna     | Euskal Sozialistak-Socialistas vascos |

#### **IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

#### **IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta andrea

#### **KONTUHARTZAILEA:**


Mikel Zubizarreta Elicegui jn.

### **BESTE RTARATZE ETA IRTEERAK**

#### **AZTERTUTAKO GAIK**

#### **EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIK:**

- 1.- 2018ko abenduaren 10eko aparteko osoko bilkurako akta onartzea.
- 2.- 2018ko abenduaren 20ko ohiko osoko bilkurako akta onartzea.
- 3.- Abenduko alkatetza dekretuen berri ematea.
- 4.- Urtarrileko kontratazioei buruz Kontuhartzaileak egindako ingerak.
- 5.- Suhiltzaileen foru zerbitzuari buruzko EHBILDUren mozioa.
- 6.- Aita Mari laguntza humanitarioko itsasontziari buruzko mozioa, Ordiziako Alderdi Sozialistarena.
- 7.- Naturkon-ek egindako eskaera, pinudiei buruzkoa eta ingurumenaren eta Osasun Publikoaren babesari buruzkoa.
- 8.- Aurrekontu aldaketa kreditu transferentzia bidezkoa, 2018ko aurrekontuari dagokiona.



**Ordiziako Udala**

2019IOSB0002

**PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:**

.- 2019ko aurrekontu luzatuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kreditu aldaketa onartzea.

**GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:**


.- Eutanasiaren aldeko adierazpena.  
. - Enirio-Aralar dokukmentalaren berri ematea.


**GORABEHERAK**

**ORDUTEGIA:**

**HASIERA: 19:00etan**

**AMAIERA: 19:45etan**





## Ordiziako Udala

2019IOSB0002

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

### **1.- 2018ko abenduaren 10eko aparteko osoko bilkurako akta onartzea.**

#### Proposamena

#### **2018ko abenduaren 10eko aparteko osoko bilkurako akta onartzea.**

#### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Sukia andereak esan du akta hau 2018ko abenduaren 20an ohiko deialdian egindako bilkuran onartu zela eta hurrengo puntuan, abenduaren 20ko ohiko osoko bilkuran aktaren onarpena, lehenengo puntua dela 2018ko abenduaren 10ean egindako aparteko bilkuraren aktaren onarpena.

Idazkariak puntu hau egiaztatu ondoren, adierazi du, aurreko bilkuran hain zuzen ere onartu zela akta eta bere akatsa izan dela eguneko gai-ordenan sartzea.

**Beraz, puntua eguneko gai-zerrendatik atera da.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **2.- 2018ko abenduaren 20ko ohiko osoko bilkurako akta onartzea.**

#### Proposamena

#### **2018ko abenduaren 20ko ohiko osoko bilkurako akta onartzea.**

#### Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Ez da izan.

#### Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldekoak: 13 (EAJ/PNV5, Ordiziako E.H. Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)


Aurkakoak: 0)

Abstentzioak: 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



**3.- Abenduko alkatetza dekretuen berri ematea.**


Abenduko Alkatetzako dekretuen berri eman da.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Ez da izan.

**Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:


**4.- Urtarrileko kontratazioei buruz Kontuhartzaileak egindako ingerak.**

Ordizian 2019ko urtarrilaren 28an

**AURREKARIAK:**

**Kontu-hartzaileari, honako kontratu hauek epez kanpo daudela jakinarazi diote idazkaritza sailetik:**

| Enpresaren izena                       | Kontratuaren xedea  | Kontratua         | Bukaera data                    | Prorrogak   | Kontratuaren prezioa  | 2018an Gastatua |
|--|---|-------------------|---------------------------------|---|---|-----------------|
| Gesmupal                               | Diru. bilketa exekutiboa  | 2003/11/03        | 2007/11/03                      | ---   | Aldakorra   | 33.393,66       |
| Juan M. Garmendia Amundarain           | Kultur etxearen atezaina  | 1986/04/15        | Mugagabe                        | Urteko luzapena   | 2016ko zenbatekoa: 2.948,84+ BEZ hilabetero                                       | 44.253,92       |
| Landarri S.L.                          | Hilerriaren zerbitzua   | 2005/03/10        | 10 urte<br>2015/03/01           | Luzapen dekretua esleipen berri bat arte. Bukaera data 2016/03/12 | Gehieneko kopurua 18.000 euro + BEZ   | 30.058,12       |
| Eulen Sociosanitari os                 | Etkez-etxeko laguntzaren zerbitzua  | 2010/12/24        | Gehieneko 5 urte<br>2015/12/24  | Urteroko prorroga kontratu berria egin arte.                      | Tarifen arabera.  | 82.481,67       |
| Lorraz Elkartea. Arantxa Zabaleta Imaz | Arrisku egoeran dauden gazte eta adintxikiko gizarte-herkuntza zerbitzu publikoa. | 2012/04/27        | Gehieneko 4 urte.<br>2016/04/27 | Urteroko prorroga kontratu berria egin arte.                      | Kontratuaren prezioa: 60.000 euro BEZ barne 2016ko prezioa: 65.529 euro BEZ barne | 65.529,00       |
| Erro Koop. Elkartea. Leire Andia       | D'Elikatuz zentroaren kudeaketa   | 2012/07/24        | Gehieneko 4 urte<br>2016/04/27  |   | Kontratuaren prezioa: 90.000 euros BEZ barne.                                     | 105.496,36      |
| INDOK                                  | Munigex-en kudeaketa  | Kontraturik gabe. | Urterokoa                       |   | 2016ko prezioa:   | 9.107,32        |



|                              |                         |            |            |                      |   |           |
|------------------------------|-------------------------|------------|------------|----------------------|---|-----------|
|                              |                         |            |            |                      | 12.196,80<br>euro BEZ<br>barne                        |           |
| LAIA<br>S.COOP.              | Agenda 21               | 2013/04/01 | 01/04/2015 | Kontraturik<br>gabe. | Kontratuaren<br>prezioa::<br>17.061 euro<br>BEZ barne | 17.913,96 |
| Ainara<br>Ormaetxea<br>Harto | Inmigrazio<br>zerbitzua | 2016/01/01 |            |                      | 21.773,95<br>euro BEZ<br>barne                        | 22.089,30 |

**a) Aplikagarria zaizkion arauak:**

**a.1) 9/2017 Kontratu Publikoen Legea, azaroaren 8koa.**

“29. artikulua. Kontratuen iraupen-epa eta kontratuen exekuzioa.”

1. **Sektore publikoko kontratuen iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu beharko dira prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldian-aldian prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai,** kontratu jakin batzuei aplikatzekoak diren arau bereziak eragotzi gabe.

Bigarren xedapen gehigarria. Tokierakundeetarako kontratazio-arau bereziak.

1. **Alkateen eta toki-erakundeetako presidenteen eskumenekoak izango dira, kontratazio-organo diren neurrian,** kontratu hauek: obra-kontratuak, hornidura-kontratuak, zerbitzu-kontratuak, zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak, administrazio-kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, **baldin eta beren zenbatekoa ez bada aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa,** eta ezta, inola ere, sei milioi euro baino handiagoa; orobat izango dira haien eskumeneko mota horietako kontratuak, zenbait urterako direnean, betiere lau urte baino gehiago irauten ez badute eta urteroko guztien zenbateko metatua ez bada lehenengo ekitaldiko baliabide arrunten 100eko 10 baino handiagoa, ez eta sei milioi euro baino handiagoa ere.

“35. artikulua. Kontratuaren gutxienerako edukia:

1. *Sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek egiten dituzten kontratuek aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, pleguetan azaltzen ez badira:*

***l) Hala egokituz gero, prezioa zein aurrekontu-kredituren edo kontabilitate-programa edo -errubrikaren kontura ordainduko den.***

**a.2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.**

“ 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola.”


- 1.- Kontuhartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasuntza publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

- a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurreziazkoa.

**b) Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.**

- c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udalbatzaren erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoen erabilpenerako amankomunatuerei erantsiko zaie.



“70. artikulua. Ingerak.”

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere ingerak idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientearen **funsezko beharkizun** edo izapideak alde batetara utzi direnean.

4.- Ingerak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazibeharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

**a.3) 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.**

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina:

“213. artikulua. Barneko kontrola.”

Toki-entitateetako organo kontu-hartzaileek ekitaldi bakoitzean garatutako kontrol horien emaitzak jasoko dituen laburpen-txosten bat igorriko diote, urtero, Estatuko Administrazioaren Kontu-Hartzailetza Nagusiarri, aurreko lerrokadan adierazitako arauetan xedatutako epea eta edukia errespetatuz.»

“218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak.”

1. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.


**Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

2. Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

3. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

4. Kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

Hile honetan irregularitasun egoeran dauden kontratuen ondorengo fakturak iritsi dira:



**ERREPARO FAKTURAK**

**URTARRILA**

| <b>HORNITZAILEA</b>        | <b>FAKTURA<br/>ZENBAKIA</b> | <b>ZENBATEKOA</b> |
|----------------------------|-----------------------------|-------------------|
| J.M.GARMENDIA AMUNDARAIN   | 2019/1                      | 3.701,25          |
| LORRATZ ELKARTEA           | 420                         | 5.460,75          |
| INDOK                      | 1136                        | 3.239,78          |
| LAIA, S.COOP.              | 18/55                       | 1.492,83          |
| ERRO KOOP. ELKARTEA        | 017U/18                     | 7.640,25          |
| ERRO KOOP. ELKARTEA        | 001U/19                     | 4.550,00          |
| AINARA ORMAETXEA HARTO     | 95                          | 1.814,49          |
| AINARA ORMAETXEA HARTO     | 96                          | 1.814,49          |
| GESMUNPAL, S.A.            | 2018/441                    | 2.356,26          |
| GESMUNPAL, S.A.            | 2018/12                     | 339,20            |
| EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A. | 3581802                     | 9.378,88          |
| ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L. | 86                          | 286,48            |
| LANDARRI, S.L.U.           | 1800772                     | 320,87            |
| LANDARRI, S.L.U.           | 1800773                     | 641,74            |
| LANDARRI, S.L.U.           | 1800774                     | 320,87            |
| LANDARRI, S.L.U.           | 1800776                     | 320,87            |
| LANDARRI, S.L.U.           | 1800819                     | 1.108,20          |
|                            | <b>GUZTIRA</b>              | <b>44.787,21</b>  |

**ONDORIOAK:**

- a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira.
- b) Zerrendatutako kontratuen fakturen ordainketen izapidetza etengo da, Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

*Ordiziako Kontu-hartzailea.-Miguel Zubizarreta Elicegui*


Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

**2019/0077 DEKRETUA**

**HONAKO HAU IKUSITA:**

- Kontu-hartzaileak 2019ko urtarrilaren 28an egindako 01/2019 txostena, indarrean ez dauden kontratuei dagokien zenbait fakturei ingera adierazten diena.
- Zerrendan dauden fakturak, epea amaitu ostean indarrean ez dauden eta luzapen epea ere agortuta duten zerbitzu-kontratuei dagozkie.



## Ordiziako Udala

2019IOSB0002

- Gaur egun dagoen lan-pilaketak kontratazioan egunean egotea eragozten du: Araudi berrien ugaritzeak, administrazio elektronikoaren ezarpenak gardentasun irizpideen baitan administrazioak betebeharrak jakin batzuk izateak espediente guztiak zorrotasun handiagoarekin bideratzera eta beste erakunde eta administrazio batzuei gai askoren inguruko informazioa helaraztera garamatza.

- Hala eta guztiz ere zehaztutako kontratuak eguneratzen eta arautzen ahalegintzen ari gara eta lehenbailehen eguneratu ahal izateko dagozkien teknikariek inplazatuak prestatzeko eta plangintza egiteko bilerak egiten ari gara.

- Plangintza hori emaitzak ematen hasi da.

- Hala ere eta kontuan izanda zerbitzuak ematen ari direla horietako asko beharrezkoak edo ezinbestekoak direlako zerbitzuen gastua ordaintzea egokitzen da.

Horregatik guztiagatik:

### **HONAKO HAU ERABAKI DUT:**

\* Jarraian zehazten diren fakturak ordaintzeko agindua ematea eta gobernu taldeak kontratuak eguneratzeko konpromisoa hartzea eta lan hau lehenestea.

#### **ERREPARAOA: FAKTURAK**


Facturas Reparao

#### **URTARRILA**

Enero

| <b>HORNITZAILEA<br/>Proveedor</b> | <b>FAKTURA ZKIA<br/>Nº Factura</b> | <b>ZENBATEKOA<br/>Importe</b> |
|-----------------------------------|------------------------------------|-------------------------------|
| J. M. GARMENDIA AMUNDARAIN        | 2019/1                             | 3.701,25                      |
| LORRATZ ELKARTEA                  | 420                                | 5.460,75                      |
| INDOK                             | 1136                               | 3.239,78                      |
| LAIA, S.COOP.                     | 18/55                              | 1.492,83                      |
| ERRO KOOP. ELKARTEA               | 017U/18                            | 7.640,25                      |
| ERRO KOOP. ELKARTEA               | 001U/19                            | 4.550,00                      |
| AINARA ORMAETXEA HARTO            | 95                                 | 1.814,49                      |
| AINARA ORMAETXEA HARTO            | 96                                 | 1.814,49                      |
| GESMUNPAL, S.A.                   | 2018/441                           | 2.356,26                      |
| GESMUNPAL, S.A.                   | 2018/12                            | 339,20                        |
| EULEN SERV.SOCIOSAN., S.A.        | 3581802                            | 9.378,88                      |
| ORDIZIA GARBIKETAK L, S.L.        | 86                                 | 286,48                        |
| LANDARRI, S.L.U.                  | 1800772                            | 320,87                        |
| LANDARRI, S.L.U.                  | 1800773                            | 641,74                        |
| LANDARRI, S.L.U.                  | 1800774                            | 320,87                        |
| LANDARRI, S.L.U.                  | 1800776                            | 320,87                        |
| LANDARRI, S.L.U.                  | 1800819                            | 1.108,20                      |
|                                   | <b>GUZTIRA</b>                     | <b>44.787,21</b>              |

\* Dekretu hau doakionari jakinaraztea. \* Notifiquese el presente Decreto al interesado.  
ALKATEAK / EL ALCALDE,



**Eztabaida**

Ez da izan.

**Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**5.- Suhiltzaileen foru zerbitzuari buruzko EH/BILDUren mozioa.**

Proposamena

LANPOSTU BERRI DUINAK SORTU ETA SUHILTZAILE ZERBITZUA BERMATZE

ZIOA eta/edo AURREKARIAK:

Gipuzkoako Foru Aldundiko suhiltzaile zerbitzuan 204 funtzionario daude suhiltzaile eta kaboen artean. Plantilla horrekin osatzen dira egungo 8 parke-etxetako eguneroko txandak: Eibar, Ordizia, Legazpi, Oñati, Tolosa, Zarautz eta Azpeitian 4 suhiltzaileetako txandak osatzen dira eta Irungo parke etxean 6koa. Txanda horiek, Aldundiko zerbitzuko barne arauaren arabera gutxieneko txandak dira, hortik behera ezinda joan gutxieneko seguritatea eta zerbitzuaren kalitatea bermatzekotan. Beraz, gutxieneko horretatik behera joz gero, baja horiek derrigorrez ordezkatu behar dira.

Ekainaren 13an Gipuzkoako Batzar Nagusietan Gipuzkoa 2030 Plana onartu zen eta horrekin batera 19 mozio onartu ziren, horien artean planaren garapenerako urteko ekintza planak egitea eskatzen zuena eta suhiltzaileen lan baldintzak hobetzeko, lanpostu berriak sortzeko, guardia guztiak 4 suhiltzailetik 6ra pasatzeko. Batzar Nagusietako ebazpen hori betetzeko 84 suhiltzaile plaza berri sortu behar dira eta horretarako konpromisoa, plana, kronograma eta baliabideak beharrezkoak dira.


Hitzetatik ekintzetara pasatzeko aldiz, ez da urratsik egin, eta egoera okertzen joan da. 2019ko aurrekontu proiektuan ez dago ezer jasota eta Gipuzkoa 2030 Plana garatzen joateko datorren urteko planik oraindik ez dago

Gipuzkoan arlo honetan arazo jarria dago, ordezkatzeko lan poltsa hutsik baitago, hau da, ordezkatzeko zerrenda agortuta dago. Egoera honetan, txandak gutxienekoetatik behera ez joateko, bajak aritu dira estaltzen, suhiltzaileek bat bateko bajak estali ahal izateko duten 24 orduko poltsekin. Aldez aurretik programatutako bajak ere, bat bateko bajak estaltzeko orduekin ari dira estaltzen, eta une honetan suhiltzaile gehienek 24 orduko poltsa hori agortuta dute.

Testuinguru horretan egunotako gertakariak, gutxieneko txandak osatu gabe geratzea hainbat parke etxeetan eta Aldundiak Legazpiko parke etxea 24 orduz itxi behar izana suhiltzaile nahikorik ez zegoelako, egoeraren larritasun maila altuaren adierazleak dira.

Hori dela eta, azkeneko urte honetan langileen egoeraren bilakaera kontuan hartuta, hau da, suhiltzaile nahikorik ez dagoela gutxieneko zerbitzuak bermatzeko eta bajak ordezkatzeko lan poltsa agorturik dagoela, neurri urgentek ezinbestekoak direla uste du EH Bilduk. Ildo honetatik, eta Gipuzkoako sarea osatzen duten parke-etxe bat gure herrian dagoela aintzat hartuta, pasa den urtean bertatik 400 irteera baino gehiago egin zirela kontuan izanda, eta ondorioz, Ordiziako eta Goierriko herritarren segurtasun baldintzak jokoan daudela, Ordiziako EH Bilduk honako mozioa aurkezten du:

MOZIOA



## Ordiziako Udala

2019IOSB0002

**Ordiziako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio Gipuzkoa 20\_30 planaren garapenerako bidean, datorren urtean 48 suhiltzaile lanpostu berri sortzeko, parke etxe guztietan gutxienez 5 suhiltzaileen txandak bermatzeko.**

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Ezenarro jaunak dio ez dagoela suhiltzaile nahikorik suteak itzaltzeko gutxienerako zerbitzuak bermatzeko. Bere garaian sortu zen lan-poltsa agortuta dago eta beraz ez du bere eginkizuna betetzen.

Une honetan 4 suhiltzaileko txandak osatzen dituzte eskualdeko suhiltzaile parkeetan, tartean Ordiziako suhiltzaile etxean.

Batzar Nagusiek onartutako Gipuzkoa 20-30 Planak, suhiltzaileen lan baldintzak hobetzeaz gain lanpostu berriak sortzea aurreikusten du, zaintzetako langileak 4 izan ordez 6 izan daitezten.

Egoera honek berehalako neurriak eskatzen ditu.

Gogoan izanik Gipuzkoako suhiltzaile sareko parke bat Ordizian kokatuta dagoela, eta pasa den urtean 400 irteera baino gehiago egin zituela Ordiziako eta Goierriko eskualdeko biztanleen segurtasuna bermatzeko, mozio honek Foru Aldundiari eskatzen dio, Gipuzkoa 20-30 Planaren garapenean, 84 lanpostu berri sor ditzala, parke-etxe guztietan gutxienez 5 suhiltzaileen txandak bermatzeko.

### Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:


### **6.- Aita Mari laguntza humanitarioko itsasontziari buruzko mozioa, Ordiziako Alderdi Sozialistarena.**

#### Proposamena

MOZIO PROPOSAMENA, AINTZAT HARTU, EZTABAIDATU ETA ONDOREN OSOKO BILKURAK ONAR DEZAN. MOZIOAREN ZIOA: ESPAINIAKO GOBERNUKO MERKATARITZA ITSASKETAKO ZUZENDARITZAK AITA MARI GIZA LAGUNTZAKO ITSASONTZIARI MIGRATZAILEEN ERRESKATE LANAK EGITEKO MEDITERRANEORA JOATEKO EZINBESTEKOA DUEN IDATZAGIRIA UKATU IZANA.

#### **ONARRIAK**

Iragan abenduan, udal honen osoko bilkuran onartutako proposamen baten arabera, 4.000 €-ko diru-laguntza eman zitzaion **SALVAMENTO MARÍTIMO HUMANITARIO - SMH ELKARTEARI** "MayDayTerraneo Aita Mari Zubia" proiektuagatik. Alabaina, Espainiako Gobernuko Merkataritza



## Ordiziako Udala

2019IOSB0002

Itsasketa Zuzendaritzak ukatu egin dio Aita Mari giza laguntzako itsasontziari honek Mediterraneora migratzaileak erreskatatzera joateko nahitaezkoa duen idatzagiria.

Talde Sozialistak deitoratu egiten du erabaki hori, eta, gure iritziz, berri txarra da giza balioen defentsarako.

Talde Sozialistarentzat, Mediterraneoan bizitzak salbatzea eta pertsonak erreskatatzea lehentasuna da giza eskubideen ikuspuntutik, eta horrek konpromiso eta erantzun zehatzak eskatzen ditu. Migrazioetarako Nazioarteko Erakundearen (MNE) zifra ofizialen arabera, 2015az geroztik 14.454 hildako egon dira Mediterraneoan. Adituen arabera, berreskuratzen den hilotz bakoitzagatik bi galdu egiten dira itsasoan. **Bat gatzoz Iheslarientzako Nazio Batuen Goi Komisario Filippo Grandiren** asmoarekin: "Europaren ateetan hainbeste pertsona hilda, ezin dugu ezikusiarrena egin. Itsason arriskuan diren bizitzak salbatzeko ahalegin guztiak egin behar ditugu, kostatuta".

**Bat gatzoz, halaber, Amnistia Internazionalerako** ikertzaile **Matteo de Bellisekin**, migrazioaz diotenarekin: *"Ez da berriro gertatu behar, sekula, salbamenduko itsasontziak blokeatzea, eta hainbeste gizon, emakume eta haur itsasoan harrapatuta geratzea amaiera gabeko aste luzeetan; ikuskizun lotsagarria. Bien bitartean, politikariak lehian aritzen dira nor ote krudelena lehorretatzea edo edozein laguntza ematea debekatzea"*.

Eta gure egiten dugu "MayDayTerraneo Aita Mari Zubia" proiektuaren onberatasuna eta **AITA MARI** itsasontziaren ekimenak suposatzen duen premia. Gizarte-ekimena, ehunka partikularren, toki-, probintzia- eta eskualde-erakunde publiko eta pribaturen elkartasunean oinarrituta. Guztiz sinetsirik gaude bizitzeko eskubidea beste edozein gogoetaren gainetik dagoela. Funtsezkoa da agintari publikoek erantzun bat ematea **sorospen eta laguntza humanitario aktiborako ukazioari**, horretara beharturik baitaude.

Hori dela-eta, begi onez ikusi genuen **SALVAMENTO MARÍTIMO HUMANITARIO - SMH ELKARTEAK** proiekturako eskatutako laguntza. Eta horrexegatik eman genion gure aldeko botoa laguntzari.

Eta horrexegatik ere onartzen eta bat egiten dugu **SALVAMENTO MARÍTIMO HUMANITARIO - SMH ELKARTEAK** proiektuaren inguruan udal honi helarazi dizkion gogoetekin. Eta horregatik, erabakia deitoratzen dugu. Gure iritziz, berri txarra da giza balioen defentsarako.


Osoko bilkurak aho batez onartu zuenetik, Aita Mari udalaren konpromiso bat da, baita Talde Sozialistarena ere. Gure iritziz garatzea merezi eta garatu beharreko proiektua da,

Horregatik guztiagatik, talde sozialistan honako MOZIOA aurkeztu du:

### MOZIOA

1. Ordiziako Udalak deitoratu egiten du Merkataritza Itsasketako Zuzendaritzaren erabaki hori. Udalaren iritziz, berri txarra da giza balioen defentsarako.
2. Ordiziako Udalak bere babesa eta elkartasuna adierazten die azken hilabeteotan proiektu humanitario hori errealitate bihurtzen lan egin duten pertsona eta erakunde guztiak.
3. Ordiziako Udala 'SMH-Salvamento Marítimo Humanitario' gobernuz kanpoko euskal erakundea eta MayDayTerraneo proiektuaren sustatzaileak animatzen ditu egoera hau iraultzeko eskuragarri dituzten lege- eta administrazio-baliabide guztiak baliatzera eta garatzera.
4. Halaber, Ordiziako Udala bere esku egon daitezkeen kudeaketak garatzen saiatuko da, ahal duen neurrian, sortu diren eragozpenak gainditze aldera. Horretarako, bilera egingo du 'SMH-Salvamento Marítimo Humanitario' erakundeko eta MayDayTerraneo proiektuko ordezkariekin egoera ebaluatu eta eman beharreko urratsak aztertzeko. Era berean, Espainiako Gobernuko Merkataritza Itsasketako Zuzendaritzari osoko bilkurak **SMH - SALVAMENTO MARÍTIMO HUMANITARIO ELKARTEAREN** "MayDayTerraneo Aita Mari Zubia" proiekturako hartutako erabakia helaraziko dio.

Ordizian, bi mila eta hemeretzi urtarilaren hogeita biam



Sinatua: Iñaki Dubreuil Churruca (talde sozialistaren bozeramailea)

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Dubreuil jaunak azaldu du udalaren azkeneko osoko bilkuran larrialdietarako lankidetzak dirulaguntzen esparruan AITA MARI elkarteari 4.000€ko dirulaguntza ematea onartu zela, baina joan den abenduan espainiar estatuko Merkataritza-Ontziteriaren Zuzendaritzak aipatutako laguntza humanitarioko itsasontziari Mediterraneoan salbamendu lanak egiten hasi ahal izateko beharrezko agiria edo baimena ukatu ziola.

Berri txarra dela dio.

Hori ikusita, mozioak honako hau eskatzen du:

- 1) Merkataritza-Ontziteriaren Zuzendaritzak hartutako erabakia gaitzestea.
- 2) Proiektu humanitario hori gauzatzeko lanean ari diren pertsona eta erakunde guztiei babes eta elkartasuna adieraztea.
- 3) Proiektuaren sustatzaileak bultzatzea aurrera egin dezaten eta egoera hori iraultzeko eskura dauden lege- eta administrazio- errekurtso guztiak erabil ditzaten.
- 4) Agertu diren oztopoak gainditzeko Ordiziako Udalaren helmenean dauden kudeaketak gauzatzeko.

Eguren jaunak dio bere taldeak mozioa osorik babestuko duela, nahiz eta udalean mozioa aurkeztu duen talde politiko beretik iritsi den oztopoa.

Sukia andreak azpimarratu du, neurria hartu eta aldi berean neurriaren aurkako mozioa osoko bilkuran onartzeko aurkeztu duen talde politikoaren kontraesana alde batera utzita, mozioaren alde bozkatuko duela, une honetan immigrazioaren alorrean ezarritako neurri politikoak berrikusi egin beharko lirakeela uste duen arren.

Dubreuil jaunak Eguren jaunari erantzun dio desadostasunak ohikoak direla edozein alderdi politikotan eta Sukia andreak adierazi dio ez dela une egokia bizi dugun egoeraren zergatiari buruz hausnartzen eta eztabaidatzen hasteko.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)


Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:



**7.- Naturkon-ek egindako eskaera, pinudiei buruzkoa eta ingurumenaren eta Osasun Publikoaren babesari buruzkoa.**

Proposamena

UDALERRIKO PINU-SAILAK ETA INGURUMENAREN ETA OSASUN PUBLIKOAREN BABESA

AURREKARIAK:

EAEko azken Baso Inbentarioko atuen arabera (2016), intsinis pinuaren monolaborantzaz osatutako eta ia 125.000 hektarea dituen ustiatutako masa itzela sortu da (ez dira basoak). Horiei gehitu behar zaizkie beste espezie exotiko komertzialen 80.000 Ha luzeak. Denek infektatu dituzte gure paisaia naturalak, baso-ekosistemetan bioaniztasun galera handiak eragin dituztela.

Gaur egungo egur politikaren oso ondorio larria da EAEko lurraldetik: hariztiak, pagadiak, ameztiak, baso mistoak, artadiak eta abar. Ildo horretan, EAEn baso-politika berriak ezartzeko asmoz hainbat gizarte eragileren proposamen teknikoak adira: Naturkon, Gipuzkoako ekologista eta naturazaleen Plataforma bateratua (2012), eta Kolore Guztietako Basoak Bizkaian (2017).

Ustiapena intentsibotu izanaren ezinbesteko beste ondorioa da erabili diren espezieen berezko izurri espezifikoak neurrigabe ugartu izana, hala nola pinu-beldarra, fusariuma edo gau egungo xingola gorria nahiz marroia.

EAEko intsignis pinuko masetan xingola marroia eta gorria izeneko onddoek eragindako gaixotasunek sortu duten egoera fitosanitario larriaren aurrean, 2018ko urrian Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiek eta egurraren sektoreak "Koiferoen basoak berreskuratzeko euskal Estrategia" izenekoak aurkeztu dute. Horren helburua EAEko 207.131 Ha-ko egur espezie exotikoen monolaborantzan eta lurzoruen erabilera intentsiboan oinarritutako baso kudeaketa kaltegarria sendotzea eta berrestea da, -eta ez zaio inondik ere heltzen maldak, ibaiak, ur hartuneak edo eremu babestuen arabera baldintzak ezartzeari. Alegia, bost axola naturari eragindako albo-ondorioak, bost axola lursail hurko nahiz urrunekoei eragindako albo-ondorioak, bost axola osasun publikoari eragindako albo-ondorioak.


Ustezko "estrategia" horrek aurreikusi du xingola marroia eta gorriaren aurka kupre (I) oxidoa erabiltzea fungizida gisa. Honek ondorio larriak sor ditzake Ingurumenean eta osasun publikoan: basa fauna, lurzoruak, urak eta bere hornidurarako hartuneak, elikagaien soroak, eta giza populazioaren osasun publikoa. Onddo eta giza populazioaren osasun publikoa. Onddo eta zizen komunitate naturalak txikitzeaz gain (fungizida orokorra baita, inongo bereizketarik egiten ez dueña), basa-faunari, lurzoruari, urari eta hornidurarako uraren hartuneei, jateko laboreei eta herritarren osasunari ere eragiten die. Gainera, dozenaka iturburuk eta errekek hainbat baserri eta nekazal ustiapenei zerbitzua ematen diete.

Europako Batasunaren arauak aspaldi debekatua dute, oro har, gai fitosanitarioak hegazkin bidez botatzeko teknika, hain prezisio txikikoa izanik arrunt barreiatzen delako produktua. Hartara, nahi ez den tokira iristen da, ez dakigu dosifikazioa ondo aplikatu den eta behar baino askoz ere kantitate gehiago botatzen da naturara. Horren emaitza da bidegabe eragiten zaiela kaltea, eta gainera alferrik, bai naturari, bai osasun publikorari. Oso salbuespen puntual batzuk baizik ez dira aurreikusten debekua altxatzeko.

Kupre (I) oxidoaren aire bidezko fumigazio-tratamendu masiboa 2019ko udaberrian aurreikusi da, baldin eta Espainiako Gobernuak baimentzen badu.

Aurreko guztia ikusirik, eta gaur egungo baso-politika sakon eta zintzo berrikusteko premia gora-behera, Udal honek hau

**EBATZI DU:**



## Ordiziako Udala

2019IOSB0002

- 1.- Ordiziako Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio gure udalerriko baso eremuetan, publiko zein pribatuetan, inongo aire bidezko fumigaziorik egin ez dezala, Ingurumenaren, osasun publikoaren eta giza populazioarentzako ur hartuneen babesa bermateko asmoz.
- 2.- Ordiziako Udalak bere jabetzako mendietan oxido kuproso bidezko tratamendurik egiteko baimena ukatu egiten du beraiaz.
- 3.- Ordiziako Udalak Euskal Herriko gainerako erakunde publikoei, alegia, Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari, Foru Aldundiei, Udalei, Mankomunitateei, Partzuergoei zein Auzo Erakundeei ere, beren jabetzako mendietan beste hainbeste egiteko gonbita luzatzen die.
- 4.- Ordiziako Udalak udalerriko lurjabeei gonbit egiten die halaber, beren sailak fumigatzeko baimena ukatu dezaten, haiek jabeak direnez.
- 5.- Ordiziako Udalak ez du baimentzen udalerrian tratamendu fitosanitarioak aireontzi bidez aplikatzen.
- 6.- Ordiziako Udalak erregistro bat sortuko du bere sailak zein horien inguruak ez fumigatzea nahi duten herritarrek beren izena eman dezaten eta Udalaren babesa jasotzeko. Udalak, halaber, gaiaren inguruko aholkua eskaintzen die eta Aldundiaren aurrean haien izenean egin beharreko gestioak egiteko zerbitzua ere bai.
- 7.- Mozio honen edukia jakinaraztea: komunikabideei, Eusko Jaurlaritzari, hiru Foru Aldundiei, Espainiako Gobernuari eta egurraren sektorearen ordezkariari (Baskegur).

Ordizia, 2019ko urtarrilaren 15.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Huesa andreak, NATURKON koordinakundearen izenean, pinu-sailen gaitzari buruz eta Gipuzkoako Foru Aldundiak izurriteari aurre egiteko pinudiak fumigatzeko erabakiari buruz hitz egin du.

Egoera horren aurrean, NATURKON taldeak mozioa aurkeztu du udal batzari eztabaidatua izan dadin eta udalak Foru Aldundiari erabateko ezetza eman diezaion.

Aire bidezko fumigazioa debekatuta dagoela eta osasun publikoari egin diezazkioken kalteak larriak izan daitezkeela argitu du.


Ebazpenen ataleko 7 puntuak banan-banan aipatu ditu.

Alkate jaunak dio horri buruzko informazioa eskatu duela. Gaitzak dakartzan arazoek jakitun da.

Nekazaritzan fumigazioa erabiltzen dela eta diputazioak fumigazioaz baliatzea erabaki badu osasun publikoa bermatzeko beharrezko neurriak hartuz egingo duela dio.

Sukia andreak erantzun dio, hain zuzen, nekazaritzan fumigazioa erabiltzen dela baina modu selektiboan eta ez bereizi gabe. Mozioaren alde bozkatuko dutela eta udalak bere mendien fumigazioari uko egin beharko liokeela esan du.

Ezenarro jaunak, Sukia andrearen ildo beretik, modu selektiboan fumigatzea edo bereizi gabe eta inolako kontrolik gabe fumigatzea oso gauza ezberdinak direla azaldu du.



Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (EAJ-PNV 5, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

**Alkate jaunak ondorioz, proposamena gehiengoz onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**8.- Aurrekontu aldaketa kreditu transferentzia bidezkoa, 2018ko aurrekontuari dagokiona.**

Proposamena

**AURREKONTU ALDAKETA KREDITU TRANSFERENTZIA BIDEZKOA, 2018KO AURREKONTUARI DAGOKIONA**

Udal honen 2018ko aurrekontuaren barnean gastu partiden arteko transferentzia bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den espedientea aztertu dugu.

Alkateak egindako proposamena aztertu da. Hortik ondorioztatu da adierazitako aldaketa aurrekontuaren exekuzioa arintzeko lagungarria izango dela eta horren izapidetzea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin. Hori hala izanik, batzorde honek bidezkotzat jo du organo eskudunak onartzea kreditu transferentzia, 100.000,00 eurokoa, bai gehitutako kredituei (altak) dagokienean, bai transferitutako kredituei (bajak) dagokienean, proposamenean ageri diren aurrekontuko gastu partiden xehetasun berarekin.

Onartutako kreditu aldaketa honako hau da:

**KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA**


**Kreditua transferitutako duten gastu partidak (bajak)**

| Partida                   | Izena                         | Hasierako kreditua | Murrizketa        | Amaierako kreditua |
|---------------------------|-------------------------------|--------------------|-------------------|--------------------|
| 1 643.02.341.00.0161 2018 | Majori igerilekuen proiektua. | 100.000,00         | 100.000,00        | 0,00               |
|                           | <b>GUZTIRA</b>                | <b>100.000,00</b>  | <b>100.000,00</b> | <b>0,00</b>        |

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

| Partida (*)               | Izena                                | Hasierako kreditua | Gehikuntza        | Amaierako kreditua |
|---------------------------|--------------------------------------|--------------------|-------------------|--------------------|
| 1 733.03.341.00.0161 2018 | Majoriko 2.faseko exekuzio proiektua | 0,00               | 100.000,00        | 100.000,00         |
|                           | <b>GUZTIRA</b>                       | <b>0,00</b>        | <b>100.000,00</b> | <b>100.000,00</b>  |

\* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira



Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak azaldu du zertarako egingo den kreditu-transferentzia. Transferentziaren xedea da Majori Kiroldegia SMri 100.000 €ko zenbatekoa pasa edo transferitzea Majoriko igerileku proiekturako.

Bozketa


Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak:13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.**



**9.- 2019ko aurrekontu luzatuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kreditu aldaketa onartzea.**

Jarraian, alkate jaunak osoko bilkurako kideei jakinarazi die presazko izaeraz puntu bat sartzeko beharra dagoela, errugbi-zelaiko zelaia ordezkatzeko 350.000€ko kreditu gehigarria bideratzeko proposamena.

Hortaz, puntuaren presazko izaeraz bozkatu da:

Bozketa

Aldeko botoak: 13 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 5, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Hortaz, puntua eguneko zerrendan sartu da.**


Proposamena

Udal honen 2019ko aurrekontu luzatuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kreditu aldaketa proposatzen da.

Kreditu gehigarria finantzatuko duen sarrera bat datoz espedienteari aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoekin, eta oso-osorik finantzatzen dute gastu gehikuntza. Finantzatuko da mementoz dagoen aurrezkiarekin eta itundutako zergetako partaidetza partidan islatzen dena. Inbertsioa Rugby zelaiaren belarra aldatzeko da, eta Majori Kiroldegiaren bitartez egingo da. Partiden aldaketa honako hau da:

| Gastu partida             | Azalpena                        | Kreditua |            |                |
|---------------------------|---------------------------------|----------|------------|----------------|
|                           |                                 | Egungoak | Aldaketak  | Behin betikoak |
| 1 733.01.341.00.0161 2019 | Majori Inbertsiotarako Ekarpena | 0,00     | 350.000,00 | 350.000,00     |
| <b>GUZTIRA</b>            |                                 | 0,00     | 350.000,00 | 350.000,00     |

| Partida                   | Azalpena                         | Zenbatekoa |
|---------------------------|----------------------------------|------------|
| 2 420.01.000.00.0000 2019 | Itundutako zergetako partaidetza | 350.000,00 |



|                             |                   |
|-----------------------------|-------------------|
| <b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b> | <b>350.000,00</b> |
|-----------------------------|-------------------|

Azaldutako guztiarengatik, eta kreditu aldaketak finantzaketa nahikoa eta egokia duela kontuan hartuz, organo eskudunari proposatzen da kreditu gehigarria, 350.000,00 eurokoa, behin betiko onar ditzala.

ORDIZIA, 2019ko urtarrilaren 31an.- Ordiziako Alkatea

#### Eztabaida

Eguren jaunak dio berak ez duela bozkatuko gai honekiko zuzeneko interesa duela eta.

Bestalde, gaiaren kudeaketa azkarra eskertu du.

Sukia andreak dio gai honi buruzko zenbait kudeaketa egin dituela eta ez duela uste 2019ko aurrekontuan sartzeko denborarik izango denik, izan ere proiektua abiaraztea presazkoa baita irailean zelaia soropil berriarekin prest egon dadin. Atzo, Majori Kiroldegiko Administrazio-Kontseiluak iragarri zuen ezingo dela 2019an onartu.

Ez datoz bat kreditu transferentzia espedienteekin, behin baino gehiagotan adierazi dute hori, baina neurria presazkoa eta beharrezkoa dela ikusita, aldeko bozka emango dute osterantzean errugbi partidak ezingo baitira zelai horretan jokatu.

Ezenarro jaunak dio ez dutela 2019ko aurrekontuaren zirriborroa ikusi ere egin, baina neurriaren beharraz eta premiaz ohartuta alde bozkatuko dutela, nahiz ez jakin neurri ona izango den.

Alkate jaunak dio Sukia andrearekin hitz egin duela alderdi politiko guztiekin bilera bat adosteko.

#### Bozketa

Aldeko botoak: 12 (EAJ-PNV 5, Ordiziako EH-Bildu 4, Ordizia Orain 2, Sozialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena aho batez onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak hurrengo puntuaren berri eman du.

#### **10.- Galderak eta eskaerak.**


Sukia andreak azaldu du Portugaleteko Udalak eutanasiaren aldeko adierazpen bat onartu duela heriotza duina nahi zuen emakume baten eskariari jarraiki.

Delako adierazpenak zigor kodeko artikulua bat indargabetzea eskatzen du suizidiorako laguntza edo eutanasia (hiltzeko laguntza) despenalizatzeko.

Udalbatzari eskatzen dio familiari bere babesa eta elkertasuna helarazi diezaiola eta onartutako adierazpen horrekiko Ordiziako Udalaren atxikimendua jakinarazi diezaiola Portugaleteko Udalari.

Dubreuil jaunak familiari babesa emateaz gain, ildo beretik hurrengo osoko bilkuraren batean mozio bat gehitu ahalko litzatekeela aipatu du.

Sukia andreak azpimarratu du "Por una muerte digna" elkartearen udalen atxikimenduaren bila dabilela.



## Ordiziako Udala

2019IOSB0002

Nabarmendu du, Ordiziako Udalak osoko bilkuran adierazpen bat onartzeari utzi gabe ere, familiari eta Portugaleteko Udalari elkartasuna adierazi beharko liekeela.

Alkate jaunak dio idazki bat prestatuko duela.

.....

Huesa andreak, LANDARLAN elkartearen izenean, Enirio-Aralar dokumentalaren berri eman du.

Aramburu jaunarekin harremanetan jarri zirela dio, mankomunitateari buruzko dokumentala aurkezteko eta finantzaketa eskatzeko bilera bat adosteko eskariarekin.

Posta bidezko mezuren bat trukatu zutela eta urtarrilean elkarteak udalari beste dirulaguntza bat eskatzeko bere kontuak eta balantzea bidali zizkiola azaldu du, eta aurrekonturik ez dagoela erantzun zitzaioela dio.

Ez zaio erantzun egokia iruditu. Gainera, 2018ko urrian egin zuten eskaria.

Alderdi politiko guztiei eskatu die seriotasunez hausnartu dezatela eskariari buruz. Zenbait enpresa, banku-entitate eta udalen dirulaguntzak jaso dituztela, baina ez dutela sortutako gastu guztiak ordaintzeko beharrezko finantziazioa lortu gehitu du.

Dokumental hori egiteko borondatezko langileen izugarrizko lana behar izan dela dio.

Jasotako erantzuna ez zaio aproposa iruditzen eta gaiari seriotasunez heltzeko eskatu du.

Goierriko elkarte bat dela azaldu du, burututako lana Enirio-Aralarreko ingurumena babesteari buruzkoa dela eta dokumentalean Europako zientzialari eta ordezkariak parte hartu dutela jakinarazi du.


Gaiari buruz hitz egiteko Udalarekin biltzeko prest dagoela adierazi du.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

ALKATEAK

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIAK



## Ordiziako Udala

2019IOSB0002

En Ordizia siendo el día **31 de enero de 2019** se reúne en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial el AYUNTAMIENTO PLENO EN Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:

### **ASISTENTES:**

#### **PRESIDENTE:**

Dn. José Miguel Santamaría Ezeiza

#### **CONCEJALES PRESENTES:**

|                                   |                                       |
|-----------------------------------|---------------------------------------|
| Joseba Aranburu Ganzarain         | EAJ/PNV                               |
| Bittor Bolinaga Alzelai           | EAJ/PNV                               |
| Jose Ignacio Iturrioz Gotor       | EAJ/PNV                               |
| Arantxa Fernandez Alvaredo        | EAJ/PNV                               |
| Igor Eguren Izagirre              | Ordiziako E.H. Bildu                  |
| Belen Maiza Urrestarazu           | Ordiziako E.H. Bildu                  |
| Adur Ezenarro Agirre              | Ordiziako E.H. Bildu                  |
| Izaro Intsausti Zinkunegi andrea. | Ordiziako E.H. Bildu                  |
| Jon Ander Caballero Zubelzu       | Ordiziako E.H. Bildu                  |
| Miren Alazne Sukia Galparsoro     | Ordizia Orain                         |
| M. Jesús Soto De Los Santos       | Ordizia Orain                         |
| Iñaki Dubreuil Churruca jauna     | Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos |

#### **CONCEJALES AUSENTES:**

#### **SECRETARIA:**

Dña. Ana Urkizu Kerejeta

#### **INTERVENTOR:**


Dn. Mikel Zubizarreta Elicegui

### **OTRAS INCORPORACIONES Y AUSENCIAS**

### **ORDEN DEL DÍA**

#### **ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:**

- 1.- Aprobación del Acta de la sesión extraordinaria del Pleno celebrada el 10 de diciembre de 2018.
- 2.- Aprobación del Acta de la sesión ordinaria del Pleno celebrada el 20 de diciembre de 2018.
- 3.- Dación de cuenta de los decretos de alcaldía del mes de diciembre.
- 4.- Reparos del Interventor sobre contratación correspondiente al mes de enero.
- 5.- Moción de EH-BILDU sobre el servicio foral de bomberos.
- 6.- Moción del Grupo Socialista de Ordizia sobre denegación al buque de ayuda humanitaria Aita Mari.
- 7.- Solicitud de Edurne Huesa Otegi en representación de Naturkon sobre los pinares del municipio y la protección del medio ambiente y de la Salud Pública.
